

## **Ander Eguidazu Aldalur izango da Indesa 2010 enpleguko zentro bereziaren zuzendari kudeatzaile berria**

**Gasteiz, 2023ko irailaren 28a.** Indesa 2010 SLren Administrazio Kontseiluak Ander Eguidazu Aldalur izendatu du Indesa 2010 enpleguko zentro bereziaren zuzendari kudeatzaile. Indesa 2010 sozietate publikoa irabazteko xederik gabeko sozietatea da, administrazio publikoen partaidetza duena, hala nola Arabako Foru Aldundiarena (partaidetza handiena). Desgaitasuna duten pertsonen enplegu egonkorra eta kalitatezkoa emateko sortu zen, pertsona horiek erabat laneratzeko eta gizarteratzeko.

Eguidazu ingeniaria da eta esperientzia handia du hainbat enpresatan taldeen kudeaketan eta zuzendaritzan, eta Jose Luis Alonso Quilchano jauna ordezkatzen du, erretiroa hartu duelako. Hona hemen curriculum vitae:

### **ANDER EGUIDAZU ALDALUR (Vitoria-Gasteiz, 1980)**

#### **KARGUA:**

INDESA 2010 SL enpresaren zuzendari kudeatzailea

#### **IKASKETAK:**

Industria Antolaketako ingeniaria, TECNUN Ingeniari Eskolan. Nafarroako Unibertsitateko Campus Teknologikoa, Donostian (2004).

Executive masterra Enpresen Zuzendaritza eta Administrazioan. Bartzelonako Unibertsitatea (2010). Adimen Artifiziala eta Berrikuntza Masterra (2023).

#### **HIZKUNTZAK:**

Euskara: ama hizkuntza

Ingelesa: ahozko eta idatzizko maila altua. First Certificate.

#### **IBILBIDE PROFESIONALA:**

EGA Solutions SL enpresaren sortzaileetako bat eta EGA taldeko zuzendaritza batzordeko kidea (2018ko urtarrila - gaur egun).

Loramendi S. Coop. sozietateko proiektu zuzendaria (2011-2017ko abendua).

Cegasa taldeko ekoizpen arduradunaren ondokoa (2007-2011).

Aciturri Aeronautica taldeko projektuburua (2006-2007).

Kalitate teknikaria BSH - Bosch & Siemens Hausgeräten (2005-2006).